



ANTZERKI
ZABALKYNDERAKO
ALDIZKARIA



Eusko Jaurlaritza

Servicio Arte Dramático

MENDITA ITXASO
Agustín Zubikari

ANTZERTI
Urria 1983. 62 alea

Agustin Zubikarai

MENDI TA ITXASO

(MARKIÑA'ko 1983 - EUSKAL LORE JOKOETAN,
ANTZERKI SAILLEAN, LENENGO SARIA)

AIJRKIBIDEA

Nire alegintxoa	7
Mendi eta itxaso.	15
Resumen de la obra en español	68
Sipnosis of the play in english.	69
Comentario sobre el Festival de Sitges.	70
Comentario sobre el Festival de Valladolid.	75

NIRE ALEGINTXOA

Euskeraz idazten asi eta andik bereala ikusi neban antzertian euskeraren eskola egoki bat.

Gure gazte urtetan, 1933-36 inguruan, euskal zale-tasuna igarten zan.

Erririk geienetan sortu ziran antzezlari taldeak, batzokietan lez beste elkartea eta bazkunetan.

Orrez gaiñera txapelketa eta leiaketak iragarri ziran, bai taldeentzat eta bai idazleentzat, gaitasun orretarako menpetasuna aupatu eta gartu nairik.

Erri-zaletasunez asi nitzan..

Apal, erraz eta egoerari begira.

Oraindik ez egoan erri txikietan, ez eta koskonduetan be, antzeztoki andirik. Uri-buruak kenduta, gure "plazak" estu, txiki, apal eta etxekoi ziran.

Gure antzezlariak ere ikasi gabeak. Berezko eskolan itxuratuak.

Gure antzerkiak, ordurarte, ez eukan ausardirik gure erdi giro ta egoera zurian zirikalari agertzeko be.

Errietan zar eta umeak batera ikusi ez eikeen antzerkirik ez gendun bururatzen ez iruditzen.

Ez ori bakarrik. Askotan, lanerako, agertzeko lez egiteko ere, lotuera eta eragozpenak genduzan lagun artean. Gazteen erakundetan luistarrak eta Mariaren

alabak genduzan erririk geienetan, eta dantza lotua era-gozpenduten zan lez, neska-mutillak alkarrekin lan egi-tea ere debekatuta egoten zan.

Beraz idazle batentzat eta talde zuzendarientzat eragozpen ugari agertzen ziran jokabide orretatik.

Orrela, bildurtu egiten ez ba giñan be, atzeratu bai egiten giñan lanak idazten, eta egia esateko, ni ere luistaren lendakari izatera eldu nitzan au, lotsa zaintzera beartuta negoan gure jokabide eta erakundeen araberan.

1936 urteko gerra baiño len, lau antzerki idatzi nitun.

"Aberriagaz bizi", umeentzat. "Euzkadi" egunkarian agertu zan, zatika, 1934 urtean.

"Illobearen indarra", nausientzat. Au be egunkari berean agertu zan 1935'n.

Antzerki bi oneik Ondarroa'n antzeztu ziran iru-lau alditan, bai eta Bizkai'ko beste erri batzuetan.

1936'n "Itxas lapurrik" idatzi eta "Euzkadi"n argitaratu zan, baiña ez gendun iñun antzeztu.

Urte orretan Bilbo'ko Euzko Gaztediak eratu eban sariketa baterako "Itxas-ertzeko itsu-mutilla" gertu eta bialdu neban. Sariketa orren erabagirik ez zan emon eta zabaldu, gerra sortu ta danok nastean galdu giñalako.

1945 urtean Biarritz'en egon zan sariketa bat.

Arako egin neban "Itxasora" jostirudi bat ta saria irabazi.

Gero, denpora pasa, egin nitun umeentzako batzuk. Ala "Umetako kezkak", "Aingira kumak" eta abar.

Donosti'n, "Agora" izeneko sarketa batzuk asi ziranean, biztu egin nitzan.

Nire ustetan, gure egoera eta giroa ikusita, Donosti'n aldi baten egin ziran "Saski-Naski" edo ta Bilbo'ko "Txinpartak", "Oldargi" eta abarren jokabidea zan girorako joko egokia. Irudi, estanpa antzerakoak, abesti eta apainduraz ornidu eta al zanik errazen ikasi eta agertzeakoak.

Bide orretan 'Seaska inguruán' idatzi neban 1956 urtean eta bigarren saria lortu Donosti'n. "Egan" aldizkarian agertu zan.

Ainbat erritan antzeztu gendun lan ori, gabon-eguerri giroko lan ori, Ondarroa'n asi eta Mutriku, Deba, Elgoibar, Markina eta Bilbo'n bertan, "Arriaga'n, Euskaltzaindiaren eskutik.

Talde itxurotsua sortu zan Ondarroa'n eta bereala eroan genduzan orrek lan geiago egitera. Giro bardintsuau "Jaunaren Bidetan" gertu neban, eta azpeitiarrak be lan berbera erabili eben, areik Jose Mari Altuna'ren abestiekin. Au be "Egan"en argitaratu zan.

Ainbat erritan antzeztu gendun lan ori, alde batetik ondarrutarrak Bilbo, Gasteiz (Olábide'ren omenaldian),

Durango, Lekeitio, Markina, Bergara, Zumarraga eta abarretan agertu gendun. Eta azpeitiarrak euren inguru eta Donosti'n.

1963'ko "Toribio Alzaga" sariketarako "Iru Alaba" idatzi neban ta sari ori irabazi. "Euskera" aldizkarian agertu zan lan au.

1964'n Txomin Agirre'ren eun garren urtea zala-ta, "Kresaletan" gertu neban, au be arrantzale bizitzan oiñarritutako irudiekin.

Gure Txomin Agirre'ri berea emotearren, bere "Kresala"ko "Kitolis"en zatia, Tramana eta Brix'en jarduna eta besteren bat atara nitun, baiña beste guztia eginda neukazan irudietatik oiñarritua zan. Gregorio Solabarrieta'ren musikeagaz apaindu genduzan irudiak eta ainbat errietan antzeztu, Ondarroa'n asi, Bilbo eta Donosti, Pasai, Zarautz, Tolosa, Bermeo, Galdakao, Zumaia eta abar, beste batzuen artean.

Zori bardiña euki eban urte bete geroago egin neban "Mariñelak" lanak, au Jose Mari Altuna'ren musikakin.

Lengo errien gain Oñate, Bergara, Ordizia, Eibar, Elgoibar, Ondarribi eta abarretan antzeztu gendun.

Erri askotatik euki genduzan deika. Baiña gure euskal giroa jokabide barrien giroagaz nastuten asi zan. Eta talde batzuk folklore geiegi gerabilla-ta, beste giro bat bear zala ta... ez gatzetako ta ez uretako geratu giñan.

Nire aldetik antzerkiak idazten jarraitu neban.

Orrela sarketa batzutan irabazole geratzen ikusi nitun batzuk. Euren artean.

1967 urtean "Toribio Alzaga" saria, "Gizon on eta andre erre" lanak.

1967 urtean, "Gipuzkoa" sarietako aipamena "Bizi Garratza"k.

1968 urtean, "Gipuzkoa" saria, "Lurrunpean" lanak. "Egan"en argitaratu zan.

1969 urtean, "Errekonduan" lanak, "Gipuzkoa saria".

1969 urtean, "Mendu zarrak", Bilbo'ko Toribio Alzaga saria.

Esandako orreitak gain, beste oneik idatzita daukadaz:

"Loiolako Semea", "Ni naz kapitan pilotu"; "H Opokoa H"; "Kirritirrika"; "Gernika Aritz aurrean"; "Zurrututun"; "Zimur Zimelak"; "Saliña-Saliña" eta besteren bat.

"Kirikiño" zanaren omenaldirako bere "Atxuriko Millagrúa" ipuiña antzeztuteko egokitua neban eta bardin Urruzuno'ren omenaldirako, bere ipuiñetatik, "Urruzuno'ren umorez".

Orain argitaratzen dan au, "Mendi eta Itxaso".

1983 urteko Markiña'ko Lore Jokoetan, Antzerti saillean lenengo saria irabazia da.

Baldiritzák aurren antzerkia eskatzen eben eta alaxe, prisaka egin neban lan au.

Nire ustetan lan bizia da, euskera errazekoa, eta irudi politeten antzeztu leikena, batez be azken zatia, zelako ametsa eta fantasia erabili, ala atara leikena.

Ori da antzerti zaletasunez idatzi izan dodana.

Egia esateko geiago idatziko neban... baiña ez nun antzeztu, eta ez zeñek antzeztu, azken urteotan beste erako zaletasunak ugariago erabili ditudaz.

Nire lana borondate eta gogo onez egiña da, geiene-tan be gure antzokirik geienei begira, erraz antzeztuteko eran.

Orra nire lana. Egiña lez agertzea dagokit. Besteena izan bear da kritika, ez nirea.

Augustin ZUBIKARAI

Zubikarai'ren "Bizi Garratza" Irakur Sail'ean agertu zanean, Xabier Lete'k, bere Sarreran, onelakoak idatzi zitun:

"Izan ere, Agustin Zubikarai aipaturikako gerla osteko giroan bere teatro lana osatu duen idazlea da. Eztut honekin garai hartara bakarrik lotu nahi. Gaur ere idazten du, eta nere ustez iñoz baiño hobeto; bainan, hala ta guztiz, bere pentsakeraz, izakeraz, edadez eta idazkietako giro berezi horrek adierazten digunez, garai hartako egile klasikoa da, eta behar bada, teatro saillean langilleena ta onena."

"Zubikaraik ba du halako erreztasun berezi bat bere obren pertsonaiak eszenan ezartzeko, definitzeko eta mugitzeko. Era klasikoan planteatzen du bakoitzaren zer-esana eta zer-ikusia, bainan errez erabiltzen du gaia eta pultsu sendoarekin eramatzen ditu aurrera, berak ezarri nahi dien papera ondo beteaz., Dialogoak, elkar-hizketak, guztiz trebeak eta pizkorak dira; abilidade haundiarekin mintza arazten ditu bere pertsonaiak, era herrikoietan gaiñera, herrikoikerietan erori gabe; naiz eta batzuetan, noizik behin, dialogoaren bizkortasuna eta bizitasun horrek berak hizkuntzaren aldetikako "barroko-tasun" pittin bat enbazogarria sortzen badu ere."

w

MENTI TA IIXASO

(Umeentzako antzerkia)

IRUDI-EGILLEAK

IBON	
MANU	Mutillak
PERU	
UNAI	
ANDE	
LORE	Neskak
TODA	
GARO	

ZURI-(*Txakurra*)

(*Mutil bat txakur estalki barruan*)

(Azken aldean, ITXASKI eta ARRAIN azalez jantzita agertuko dira. Bardin da bata nai beste).

IENENGO EKINTZA

i

IBON, MANU, ANDE, LORE, TODA, GARO eta PERU.

(Oiala jasoeran, antzeztokia utsik agertzen da. Bereala asiko neska-mutillak bertaratzen, ariñeketan, alkarren leian, zein-geiagoka bultzadaka).

Ibon (Sartuaz) Ni lenen!

Manu (Sartuaz) Saka, bultz egin daustazulako.

Ibon Nik?

Manu Zeiñek ba? Ez ukatu.

Ibon Zegaitik ez, guzurra ba da?

Manu Bardin egiten dozu beti. Ez dakizu garbi irabazten.

- IBON** Makalen koplak dira orreik.
- MANU** Nai dozu barriro asi?
- Asi be bestea baiño lenago egin zara^
- ANDE** (*Sartuaz*) Ni bigarren.
- MANU** Nungo bigarren? Ni ez naiz iñor, ala?
- ANDE** Bai baiña...
- MANU** Bañak soluan, ez dakizu?
- ANDE** Baiña nesketa ni lenen.
- IBON** Emen be neskak neskakin eta mutillak mutillakin?
- LORE** (*Sartuaz*) Ni zenbatgarren? Laugarren, ez?
- TODA** (*Sartuaz*) Orretara ni bostgarren.
- MANU** Besterik ez dator?
- GARO** (*Sartuaz*) Ni zenbatgarren?
- LORE** Seigarren. Azken.
- MANU** Azken datorrena popa ustel.
- GARO** Ni ez. Oraindik falta dira.
- IBON** Betikuak. Kepa popandi eta...
- GARO** Zuk orixe esan eta gero aren amak gureari asarreak eta nik entzun bear.
- LORE** Unai jausi egin da.
- IBON** Memeluen antzera etorriko zan eta...
- LORE** Gure amak esaten dau azurretako gaixua daukala arek.
- MANU** Jo-pe! Eta ikastolan beti lenen.

18 ANTZERTI

LORE Orrek ez dauka zer ikusirik.

IBON Zeure laguna da-ta!

LORE Nirea?

IBON EZ dakigulakoan.

LORE Zer jakin?

IBON Zera... Como sí, como no, como Cristo nos enseña.
Ezetz?

LORE Eta zeure laguna be ez naz, ala?

IBON Nirea txikiago.

GARO EZ egiozu jaramonik orrerri, beti bekaizkeriz beteta bizi da-ta.

IBON Ni? Nok diño ori? Ni bekaizti?

GARO EZ dakigulakoan. Irakasliak be ez eutsun esan, inbirixaren ezpie zareala?

IBON Ori esan eutsuna neuk atrapauko dot.

PERU (*Izerditan agertzen da, nasai, irribarretsua*) Jo! Prakak apurtu.

TODA Nun?

PERU Zerian... Ez begiratu, e?
(*Danak batrezka asten dira*)

ANDE Nun apurtu, Peru?

LORE Nun? Nun?

PERU Danok jakin nai? Egon nasai. Ez dozue ezer ikusiko. Esparadrapuagaz josi dodaz.

LORE Erakutsi!

- PERU** Barriro tart egiteko?
- ANDE** Aitzakiak dira orreik. Zuk jan da lo totolo egiten dozu eta ezin etorri bestien albuau. Atzo be apurtuta zeunkazan.
- PERU** Zelan dakizu?
- ANDE** Ba... dakidalako.
- IBON** Orreri begira ibilten zara ala?
- ANDE** Daneri nik.
- Ikusten oraintxe be?
- IBON** Zer?
- ANDE** Zugaz ezin leikela. Beti zabiltz begitansiñoekin.
- IBON** Ni? Ostera be ori esan?
- LORE** Igarten ez dautsugulakoan?
- IBON** (*Zemaika*) Emoten ba dautsut!
- LORE** Zer emon?
- IBON** Askotan ba zabiltz ez uste neska zarialako parkatuko dautsudanik.
- MANU** Tira! Ipuiñak kontatera ez gara etorri ba?
- PERU** Ni jartera nua beintzat.
- IBON** Azken etorri eta lenen jarri?
- GARO** Azken datorrena buztan ez da izaten ba?
- PERU** Or konpon. Nik zirkiñik ez dot egingo.
- Jezarri nai dabena jezarri eta tente nai dabena iñuzente potente!
- (*Danak ermita ondoko aulkia eta arri banaketan jezarten dira*)

- Igarri ezetz?
- TODA** Gaitza ez esan, e?
- PERU** Zer dala ta zer dala... Zer dala ta zer dala...
- Puntan punta bat, atzean zulo bat.
- ANDE** Zeure prakak!
- PERU** Baita zera be! Eta nik zeure gonak esaten ba dot? Jo!
- LORE** Lotsabako gauzarik ez esaten.
- IBON** Zer dira lotsabakoak?
- LORE** Ganora bakoak, ez?
- TODA** Olakoak ez dabe balio.
- PERU** Jo-pe! Nok esan dau, ba, ezer?
- TODA** Zelan esan dozu?
- IBON** Barriro entzun nai?
- PERU** Belarriak garbitu beintzat. Ba! Barriro esango dot: Puntan punta bat, atzean zulo bat. Bai, orixe: Puntan punta bat, atzean zulo bat.
- LORE** Mutillen gauza da ala neskena?
- PERU** Danena.
- ANDE** Mendian dago ala soluan?
- PERU** O mutil tontoren ipuiña dalakoan, mendian eta soluan egoteko?
- TODA** Zelakua da, jatekoa? Arraiña?
- IBON** (*Irriz*) Arraiña ba da akula.
- PERU** Akula? Lantzoia lako arraiña? Atzean zuloa nun eukiten dau arek?

- LORE** Gizona ala andrea da?
- GARO** Len be ez dau esan, ba, danena dala?
- MANU** Nun egoten da, etxeан ala kalean?
- PERU** Edonun.
- TODA** Oraintxe be guzurretakoren bat izango da. Olakorik ba litz...!
- PERU** Zeiñek esan dau ori? Zeu lez, egitakua da.
Ezin igarri? Puntan punta, atzean zuloa. Esango dot?
- LORE** Ez, oraindik ez.
Uretan egoten da ala legorrean?
- IBON** Atsik botaten dau?
- PERU** Uzkerra dala pentsaten dozu?
- ANDE** Uzkerra, atsa bai eta gorputzik ez, ez da ba?
- LORE** Oraintxe be popako zuloa edo olakoxe zerbait izango da. Orrelakoa ba da, ikusiko dozu. Geiago ez dautsugu arpegira begiratuko.
Nik ba daukat?
- PERU** Bear ba da, bai.
- LORE** Eta zuk?
- PERU** Orain ez.
- ANDE** Eskolan egoten da?
- PERU** Uste dot baietz.
- ANDE** Uste ez, ziur esan.
- PERU** Neskenetan bai.

22 ANTZERTI

- Ezin igarri? Esango dot?
- LORE** Eta beragaz zer egiten da, ikasi?
- PERU** Batzutan bai.
- LORE** Jan?
- PERU** EZ.
- IBON** LO?
- PERU** EZ. Edo bai. Gure amumak sarri loak artzen dau beragaz dabillela.
- GARO** Negar?
- PERU** Sartuta bai.
- GARO** Ba dakit. Jostorratza!
- PERU** Dra! Sasoia zan.
- Ni neu popako miña be eginda nago jezarrita.
- Nora joango gara?
- LORE** Goiko tontorrera. Nai?
- PERU** Ni gora ez.
- Erreka ondora zegaitik ez?
- IBON** Ori! Antxe ibiliko gara ederto!
- ANDE** Ni gora nua.
- GARO** Ni be bai.
- LORE** An mazuztak dagoz.
- TODA** Neu be zeuekin nator.
- IBON** Ikusten? Asi zarie neskak neskakin.

- ANDE** Zegaitik ez gara ibili bear geuk nai ba dogu?
- IBON** Joan, joan, baiña urrenguan ez etorri laguntza nai dozuela-ta.
- TODA** Len be zeuek etorri zarie. Ez dakigulakoan nai dozuena! . Igarri barik gagozalakuan!

(*ANDE, GARO, LORE eta TODA joaten dira*)

II

IBON, MANU eta PERU

- MANU** Bardin egiten dabe beti. Etorri ta igesi.
- PERU** Emon eta kendu, zapatia kendu.
- IBON** Mutillen kontuak esatera joango dira.
- PERU** Gure kontuak? Baita zera be. Neskenak!
- IBON** Bai. Ni txarra, zu ona eta olakoxeak. Ziur dakit nik.
- MANU** Begitansiñoiak!
- IBON** Amak esaten dautse mutillekin ez ibilteko.
- MANU** Gure amak ez.
- PERU** Amak ez dira aitekin ibilten ala? Jo!
- MANU** Nik ba dakit areik zetara joango ziran.
- PERU** Txis egitera.
- MANU** Ba! Ziurrago ipuiñak ikastera joango ziran. Ez dakizue andereñuak esaten dautsela mutillak baiño gorago geratu bear dabela eskoletan egingo dan leiaketan?
- PERU** Ori ikusteko dago.

- IBON** Ezer ikasi dozue zeuek?
- MANU** Nik bai, aititak esanda.
- Markiña'n gertatu ei zan.
- IBON** Benetan ala olgetan?
- MANU** Gertatu zala ez dot esan ba?
- PERU** Gure amumak esaten dau Markiña'n egia dana, Xemein'en guzurra izaten dala.
- MANU** Orreik Txinpas'en esakerak ziran. Orretara Xemein'en ura dana Markiña'n ardaua?
- PERU** Ori ez leuke sinistuko Bollibar'en be!
- MANU** Nire ipuiña auxe da.
- Txofer bat abiada bizian joian, praillien konbentu aurretik bera.
- Aguazillak urten eutsan besuak gora jasota eta txistua joten, eta geratu eragin.
- Beriala asi zan aguazilla kuadernua atara eta lapitza ezin billatuta. Txoperrak, kezkaz beteta:
- Ze gertaten da? Zer egin dot nik?
- Aguazillak: Zer egin dozun? Ia Markiñako ume guztiak ilteko arriskuan ibili ta zer egin dozun, gañera?
- Goizeko kafesnia besterik ez dodala artu sinistu nai dozu?
- Erri barrutik orduko irurogei kilometroko martxan etorri zara.
- Irurogei kilometro orduko? Nundik dakizu ori, oraindik amar minutu ez dira sartu nazala ta?
- Ori entzun eta aguazilla buruari azka geratu zan. Erlojuari

begiratu ta txoperrari esan eutsan: Kontxo, kontxo! Egia da. Parkatu, Jarraitu egizu zeure bidean.

Ori entzunagaz batera, txoperrak frenua kendu, bizigarriari (*azeleradorari*) sakat eta ateko kirtena zaindariaren patrikara zuloan sartu zan lez, prakak apurtu, eta kantzontzillorik ez eukelako ariñeketan eskutatu bearrean laga ei eban zaindaria.

- IBON** Kontxo! Orrelako txoperrari zelan emon eutsen ba karneta?
- PERU** EZ dakizu akademian ikasi ebala?
- IBON** Jo!, baiña zein zan kasketago, aguazilla ala txoperra?
- MANU** Biak argiak areik, markiñarrak ziralako.
- Polita da?
- IBON** Nik be ikasi dot, baiña txiki-txikia da nirea.
- Gure amak esaten dau alperrik ez ikasteko, ipuiñak esateko gatza bear dalako.
- PERU** Patrikaran ekarri eta bear dana jaurti.
- MANU** Orrela izaten dalakoan?
- PERU** Ia, esan Ibon.
- IBON** Barrerik ez egin, e?
- PERU** Negar egitekua ez dozu ekarriko, ez?
- MANU*** Ixi!
- IBON** Mallabi'n gertatu ei zan.
Ango mutil bat, Peru Akerra, sartu ei zan erriko tabernara.
Eskuan eroian botilla bat, eta tabernariari esan eutsan:
Ipiñi egizu kuartillo bat ardau.
—Zuria ala baltza? itandu eutsan tabeínariak.

26 ANTZERTI

Eta Peru Akerra'k erantzun:

—Bardin da, Txanbolin itsuarentzako da-ta!

- PERU** Ori ez da ipuiña, txistea baiño. Gure amak olakoari izkirimiria esaten dautsa.
- IBON** (Asarre) Oneri be aitzakiak? Zuekin ezin leike!
- MANU** (Antzokitik kanporako alde batera begira)
Ene! Begira, begira!
- IBON** Zer?
- MANU** "Zuria" txakurra kaka-giñan.
- PERU** Sekula ikusi ez? Lenengoz egiten dau ala?
- MANU** Baiña etorri, etorri... Ipiñi, ipiñi atzápar txikiak biak alkarrí tengadaka, neuk lez.
- IBON** Zetarako?
- MANU** EZ dakizu orrela jarri ezkerro, ezin izaten dabela kakarik egin?
(Mutillak, irurak, atzapar txikiak alkartuta eta euretatik tengadaka gelditzen dira. Txakur bat zaunkaka entzuten da)
- MANU** Eutsi, eutsi! Ikusten?
(Mutillak eutsi eurenean)
- PERU** Iglesi dua! Ez dau egin!
- IBON** Baiña au guzurra da.
- PERU** EZ dozu ikusi ez dauala egin?
- MANU** Gure aittittak esaten dau lenako zarrekandik ikasi ebala berak.
- IBON** Iñó! Ori egia ba da,...

- PERU** Zein ausartutен da guzurra dala esaten? Ia, esah, nór da egia ez dala esaten dauana?
- MANU** Juan da.
- PERU** Urrengoaan be.
- MANU** Eta zeuk Peru? Zeuk ez dozu ezer ikasi?
- PERU** Orain ezin lei esan.
- IBON** Zegaitik ez?
- PERU** Ba... guk prakak darabilguzalako.
- IBON** Zer erabiliko dogu ba? —/
- PERU** Ba... ipuiña esateko, gonak.
- IBON** Neska jantzita? Zeuk urten.
- PERU** Zegáitik ez?
- IBON** Dariak neskatxiki deitzeko?
- PERU** Ekarriko daustazu arrebaren gona?
- IBON** Nik? Amari esan!
- MANU,** Amari zegaitik?
- IBON** Gogua daukadalako.
- MANU** Zegáitik daukazu orrelako gogua?
- IBON** Neuk nai dodalako.
- MANU** Eta zegaitik nai dozu?
- IBON** Ze puñeta! Esango neban oraintxe be!
- MANU** Zer esango zendun?
- IBON** Joan zaite pikotara, ikuak jan eta kaka egitera.

28 ANTZERTI

MANU Ikusten zelako arin berotzen zarean? /

IBON Batzukin berotu ez? Betiko koplakin!

MANU Eta, Peru, neska jantzi barik ezin lei esan?

PERU Ori bai, baiña atzea falta.

MANU Zelako atzea?

PERU Ortxe dago ba kakua.
Baiña esango dot.

Niri esandako eran, e? Egia ba da, edo guzurra ba da, sartu kalabazan.

Ara.

Ez pentsatu guzurretan nabillenik. Egi egia da-ta.

IBON EZ dozu esan, ba, egia ba da, guzurra ba da?

PERU Niri esan eusten moduan, egia da, eta sinistu nai ez ba dozu, comaidiós esango dot.

(*Danak ixilik*)

MANU Esango dozu ala ez?

PERU EZ merezi be, baiña...
Eleiza baten izan zan.

IBON Nun?

PERU Niri be ez eusten esan nun.
Garizuma zan.

IBON Noiz?

MANU Ixilduko zara iñoz?

Komediant bat autortzen joan zan.

Abadeak itandu eutsan.

Zein abadek?

Abadea ba zan Popeye ez zan izango!

Segi Peru, ez jaramonik egin.

Abadeak itandu eutsan:

Ze ogibide edo ofizio dozu?

—Titiriterua.

—Zer da ori?

—Ba... komeriantia.

—Eta ortik bizi zara?

—Bai, jauna.

—Komedia orreik nun egiten dozuz?

—Plazan.

—Zelan?

—Begiratu. Ara!

Eta Aitearen esateko be denpora barik, buruz bera eta ainkaz gora geratu zan gizona, autorlekuaren aurrean, eskuak lurrian eta ankak goian.

Ori ikusi ebenean, an inguruan egozan andra guztiak iges egiten asi ziran.

Abadiak urten eban bizkor bere lekutik eta andrei deadarka asi zan:

Nora zoaze andrak?

Eta an egoan andra batek erantzun ei eutsan: Etxera arin, orrelako penitentziak beteteko prakak jaztera!

Polita da?

Ikusten zelan ibili zan mutilla konfesonarixuaren aurrean?

(Peru'k eskuak lurrean ipini, eta euren gain buruz bera jarri ta ankaz gora ibilten da, al danik geien zutik egoten-aleginduz)

III

IBON, MANU, PERU eta ANDE, LORE, TODA, eta GARO

(Alkarregaz datozen neskak)

- ANDE** Zer da Peru? Zetan?
- LORE** Komediak egiten?
- IBON** Bai zera, konpesaten.
- GARO** Zelan ori?
- PERU** Penitentzia beteten.
- ANDE** Zoratuta zabize?
- PERU** EZ dakizu abade batek orrela ibilteko penitentzia emon eutsala neska bateri?
- TODA** Betiko gangarra zara.
- PERU** Ni gangarra?
- ANDE** Bai eta zatarra.
- PERU** Ikusten? Betikoa. Nesken gauzei ezin ikuturik egin. *(Irriz)* Jesus milla biderL

- ANDE** Jesus milla bider kantua?
- PERU** Koplakin ez etorri.
- ANDE** Kantatuko dogu nai ba dozue.
- NESKAK** (*Abestuten*) Andra Santa Luzia
pixkat artilleria,
Nok edan dau emen ura?
Aingerutxo batek.
Zenbat bidar?
Iru bidar.
Jesus milla bidar!
- PERU** Gauza bat.
- TODA** Bat bakarrik? Zer?
- PERU** Ipuña esan bearrean teatroa egingo ba genduke?
- IBON** Nun ikasita? Zu ez zagoz burutik ondo.
- PERU** Geuk ementxe.
- IBON** Zer baña?
- PERU** Ba... edozer.
Eta Bilbo'ra be joango giñake:
- ANDE** Zeiñegaz? Gu? Atrapata zagoz?
- PERU** Eta beste erri askotara.
- LORE** Durango'ra be bai?
- PERU** Bai Bollibar'era be!
- LORE** Gure izeko-ta etorriko litzakez ikustera.
- PERU** Eta Geria'ra be joango giñake. Inbiria emongo geuntsake angoei.
- LORE** Eta zer egin?

32 ANTZERTI

PERU Urteten dauana.

TODA Txistua jo ta dantzan egin.

IBON Ori ez da teatrua.

TODA Zer da ba?

IBON Porrusalda.

PERU Egon, egon...
Zeiñek nai dau akolitu izan?

LORE Mutilla izan bearko litzake, ez?

PERU Jakiña. Ni abade izango naz, eta akolini zein?

MANU Neu.

PERU Orretara zu neure alboan eta Ibon nire atzetik datozañ andrak zaindutene.

IBON Ni Matxinplaka?

PERU Aguazilla ez, eleizako ibillaldietan atzetik joaten diran andren zaindari baiño.

ANDE Eta zer egin bear dogu beste danok?

PERU Errez erreza; zuek gure atzetik etorri eta nik esaten dodanari, ora pro nobis, erantzun. Baiña arretaz eta zintzo, e?
Ermita ondotik urtengo gara.
Jarri zuek atzean. Barrerik egin barik.

(Prozesiño antzerakua eratuten da)

PERU Santa Maria.

DANAK Ora pro nobis.

PERU Santa Iageda.

- DANAK** Ora pro nobis.
- PERU** Santa Barbara.
- DANAK** Ora pro nobis.
- PERU** Santu Diopil.
- DANAK** Ora pro nobis.
- (*Bat batean Peru geratuten da eta akolituari itanduten dautsa:)*
- PERU** *Zer izan da or igaró dana?*
- MANU** *Konejo lakoxea.*
- PERU** *Erbia zala esango neuke.*
- (*Kantuz*) Auxe da auxe!
- DANAK** Ora pro nobis.
- PERU** Erbia aurrean.
- DANAK** Ora pro nobis.
- PERU** Aitak ba leki!
- DANAK** Ora pro nobis.
- PERU** Eskopeta etxean.
- DANAK** Ora pro nobis.
- PERU** An dua, an dua!
- DANAK** Ora pro nobis.
- PERU** Iges egin dau.
- DANAK** Ora pro nobis.
- PERU** Kaka-zarra!

34 ANTZIERTI

- DANAK** Ora pro nobis.
- PERU** Geldi danok! Ez dago txarto.
- DANAK** Amen.
- PERU** (*Berbetan*) Amen? Zeri amen? Orain ez dago emen. Ez dozue ikusi erbi bat ibili dala?
- LORE** Txakurra bai ba dator or zaunkaka.
- IBON** Nungo txakurra?
- GARO** (*Negarti*) Ene ba da! Bildurtu egiten naz.
- TODA** Onaxe dator.
- IBON** Erbiaren atzetik ibiliko da.
- PERU** Geldi danok! Zeren bildur?
- ANDE** Onaxe dator etorri be.
- PERU** EZ igesi. Ez dakizue txarrago izaten dala?
- TODA** Ene ba da ta!

Lengoak eta ZURI (Txakurra)

(ZURI txakurra sartzen da. Zaunkadaka dabil. TODA'ren albora urreratzen da, eta belaun Tnguruak usaindu eta txis egiteko eran ainkak jaso be bai. Txilioka asten da au. Baiña ZURI'k mutillei egiten dautse zaunkaka, geratu barik. Neskak eleiz orma egalean alkar-pillatutá geratzen dira, bildurti. Mutillei aurre egiten dautse, iges egiten laga barik, bide bat artzera beartu nairik lez.

Azkenean PERU'gaz ausartzen da. Arek ZURI'ren bultzadei ezin igesi, eta aldendu egiten du antzeptokitik, ZURI'k jarraituten dautsala.)

V

IBON, MANU, ANDE, LORE, TODA eta GARO

LORE	Txakur amorratua ez al da izango!
MANU	Kakarik ezin eginda euki dogulako asarre etorriko zan.
IBON	Ez dakizue? Len orra, aurre aldera etorri da eta guk atzamarrak lotuta geldituaz, ez dautsagu laga nai ebanik egiten, eta iges eragin.
TODA	Peru'ri ez al dautsa ezer egingó!
LORE	Geuk iges egingo dogu?
MANU	Nora? Eta igarri eta atzetik zoratuta lez etortzen ba da?
GARO	Nungua ete da?
IBON	Txakur galdua ba da amorratua be izan lei.
TODA	Ona ba dator eleizan sartuko gara.

36 ANTZERTI

- GARO** Ba al daukagu giltzik?
- MANU** Atzeko maratillagaz bakarrik sarratzen dabe.
- GARO** Eta noiz urten?
- TODA** Kandela biztuko dautsagu san Roke'ri.
- LORE** Eta pospoluak?
- TODA** -Ibon'ek eukiten dauz, aienak eta be erretekoo.
- IBON** Min luze. Nok esan dautsu esateko?
- MANU** EZ dakigulakoan!
- LORE** Gañera, ogi apur bat gendu, ogian pospoluak sartu eta gugana eterri ezkerro, berari jaurtiko geuntsakez.
- TODA** Zetarako?
- LORE** Amorratua ba da ilteko.
- GARO** Ni emen nagola txakurrik ez il.
- LORE** Zer ba?
- GARO** Ba... ez dalako iñor il bear.
- LORE** Eta geu ilten ba gaitu?
- GARO** Txakurrak ez ei dabe iñor ilten.
- LORE** Zegaitik zagoz ba dardaraka?
- GARO** Ori beste gauza bat da.
- LORE** Zuk zer diñozu Toda?
- TODA** Ni otzakilten nago, dardaraka.
- LORE** Izerditan zagoz.
- TODA** Bai...

- LORE** Besteok be emen gágoz.
- TODA** Ta txakurrak Peru'ri zerbait egiten ba dautsa?

VI

LENGOAK, ZURI (Txakurra), PERU eta UNAI

(*ZURI txakurra agertzen da, lenengo, zaunkadaka, baiña baketsu. Zelaira agertzen danean, zaunka egin eta egal baten etzaten da; alaxe jarraituko dau, burua makur, baiña adi.*
PERU'ren abotsa entzuten da.)

- PERU** Lagundu! Lagundu mesedez. Etorri laguntzen!
(*Barrukoak txakurraren bildur dira ta ez dira ausartzen*).
PERU Etorri bildur barik!
(*Lepoan UNAI ezin ekarrita agertzen da. Danak keixatutene dira. Belaun aurrea odol gorriaz dakar UNAI'k.*)
TODA Zer da Unai, min?
UNAI Asko.
LORE Ezin ibili?
UNAI EZ.
MANU Zegaitik ez dozu deitu? Pentsatu dogu etxera biurtuko ziñala.
UNAI Lenengotan egin dot.
Gero ondesa edo... ez dakit zer euki dodan.
GARO Otz daukazu?
UNAI Len geiago.

38 ANTZERTI

- MANU** Artu egizu neure jertza.
- UNAI** Zikinduko da.
- MANU** Eta zer? Ez dago ardulrarik.
- UNAI** Ez.
- MANU** Gañetik ba da be euki egizu.
- GARO** Odola pixkat garbitze^ nai?
- UNAI** Min emongo dozue.
- GARO** Nun daukazu?
- UNAI** Belaunetik bera.
- TODA** Garbituta obeto ikusiko jatzu.
- UNAI** Guazen etxera.
- GARO** Neuk egingo dautsut bigun-bigun. Gure amari be neuk garbitzen dautsat zaiñétako odol batuen zikinkeria. Ez dozu pentsaten? Neuk egitea nai izaten dau.
Sudurretako zapirik iflok ba daukazue?
- IBON** Zetarako?
- MANU** Neure alkondareari kenduko dautsagu barrenetik zati bat.
- GARO** Eta zeu?
- MANU** Anai zarrak txikiugi eginda gordeta daukáguz bestek niretzat.
(MANU'k alkondará erantsi eta Garo'k lagunduta ondotik zati bat ebagiten daut\$an).
- GARO** Nun ete dago ura emeln?
- TODA** Batek ba daki.

- GARO** Bestela lotu bakarrik eginda eroango dogu.
- UNAI** Eroan nagizue nagon moduan. Etxera nai dot.
- GARO** EZ. Zeu be obeto joango zara garbituta.
- TODA** Ara, emen ur bedeinkatu ontzian ba dago ur pixkat.
- UNAI** Egarria daukat.
- PERU** Zuk sukarra daukazu, Unai. Otzitu egin zara len?
- UNAI** Otzikarak euki dodaz.
- PERU** EZ bildurtu.
- UNAI** Ura! Ura!
- TODA** Emendik ezin, Unai. Ur geldia izango da-ta. Irakasleak ez dau beti esaten ur geldirik ez dala edan bear?
- (*GARO'k iru-lau aldiz ur bedeinkatu ontziko uretan busti eta samurki garbitutenean dautsa zauria UNAI'ri. Zapia zikin eta odolez beteta, geiago ezin erabili-ala erakusten dau*)
- GARO** Beste olakoxe zatitxu bat ba genduke...
- MANU** Nireari ezin kendu beste bat?
- GARO** Zauria estalduteko da, batzeko.
- Olaxe eroango genduke.
- Gañera gure amari ipinten dautsaguzan lakoxe zauri bedarrak be ementxe ikusi dodaz.
- Egon...
- Ba dakizue zer egin daikedan?
- Zuek geldi egon, ontxe nator-eta.
- PERU** Nora zuaz? Bedarretara? Zuk esan zelakuak diran, eta geuk batuko doguz.

40 ANTZERTI

- GARO** Naiko dira bi. Toda'k ba daki. Or ailrrean daukazuez.
- PERU** Ta zeu nora zuaz?
- GARO** Etorten ba zarie enaz joango. Lagundu, mesedesz, Lore.
(TODA ta LORE unetxo baterako aldenduten dira)
- PERU** Nai dozu, Unai, ni azpian jarri ta zure lepoa neure gorputzaren gaiñean atseden artzen eukitea?
- UNAI** Geldi-geldi egon nai dot.
- PERU** Zelan jausi zara?
- UNAI** Txirrist egin dot bustita egoan ar-zabal baten.
- IBON** JO! Eta deitu be ez.
- UNAI** Egin dot.
- IBON** EZ dogu entzun.
Gañera, etorri ez zarealako, memeloa zareala be esan dogu, neskakin ez etortearren jarraitu ez dozula-ta.
(Kanpai otsa entzuten da urrutitik)
- UNAI** Nungo kanpaiak dira orreik?
- PERU** Zer ba?
- UNAI** Niretzat ez dira izango, ez?
- PERU** Zer ba, txarto zagoz?
- UNAI** Bai.
Nire amak, ezer gertaten danean, salbe kanpaia jo nai izaten dau. Jakin ete dau zerbait?
- LORE** *(Inori ezer esan barik, kanpaia joten dua ermitara, eta eldu orduko, astiro kanpai dunbada batzuk jotea lortutenean dau).*

- UNAI** Oneik urrerago dagoz.
- PERU** Zeure guraria izan da-ta!
- UNAI** Gure ama poztuko da jakiten ba dau. Arek esaten dau kanpaa entzutean aidean dabizan arimak lagundu egiten dabela. Beti esaten dun ori.
- GARO** (*Azpiko gona kenduta dator, eskuan dakarrela*)
Ia, auxe ipiniko dogu, bero-bero egon zaitezan?
- UNAI** Zer da?
- GARO** Jantzi bat.
- UNAI** Zeiñena?
- GARO** ZU ez arduratu.
- UNAI** Ori ez da mutillen jantzia.
Amak zigortuko nau. Neskakin ibilten zauritu nazala pentsatuko dau.
- GARO** Eta zer?
- UNAI** EZ, baiña...
- GARO** EZ Unai. Ez bildurrik. Guk esango dautsagu. Nasai egon.
Belaunean bedar batzuk ipiniko dautsuguz. Lotu eta ikusiko dozu zelako pozik joango zarean. Gure ama pozik geratzen da, orrela garbitu eta aldatzean:
- UNAI** Neu izan bear beti zoritzarrekoa! Urrengoan ez dozue naiko nigaz ibilterik.
- GARO** Ene ba! Ez esan olakorik. Danok lagunak ez gara ba?
(*Gerta-bearrak amaitu ondoren*)
Ia danon artean zelan eroaten dogun.

42 ANTZERTI

- UNAI** Miñik emon barik.
- PERU** Bik aurretik eta beste bik lepotik, ez?
- IBON** Osatuko zara ta ez bildurtu, lagun.
- TODA** Eta Salberik ez dogu abestuko, kanpaia jota?
- UNAI** Nire aldetik bai.
- (Ermitara begira geratzen difa.
Salbea abestuten dabe, "Agur Itziarko"ren doiñuz)*
- Agur Jainkoaren Ama maite ederra,
agur Ama kutun, munduko izarra.
- Gaixoak osatu, zauriak garbitu,
min-gaitzak arindu, itsuak argitu.
- Agur mundutarren gidari eztitsu,
ez gurekin aztu, Ama errukitsu.
- (Bigunki jasoten dabe. Bereai-ene batzuk entzuten dira, baiña danak ixil-ixil
asten dira bidean.)*

OIALA

I EKIALDA

i

(Ondartza baten egaleko aitz-arteak, erritik kanpora, itxas-ertzean. Atzean, zulo andi bat, antxiñetatik "Ama Birgiña zuloa" deitzen dautsena.)

IBON, ANDE, LORE, GARÓ eta TODA

ANDE Unai ez da etorri.

LORE Etxean ez dautse lagaten gugaz ibilten.

GARO Baita zera be! Bildurra dauka arek.

IBON Zeren bildurra?

/ **ANDE** Memelua da ta... emen, ondartzako arri koskorrik ainkak minduteko bildurra.

/ **TODA** / Ez da origaitik. Neuk dakit ondo.

ANDE l Zegaitik da ba?

TODA / Zulo orretan Ama Birgiña ibilten dalako.

- IBON** Esango neuke...!
- GARO** Gure aitak esaten dau orrek ez dirala egia. Amak ostera baietz.
- TODA** Gurian be amak esaten dau benetan dala. Bestela zegaitik deituten eutsen danak toki oneri Ama Birgiña'ren zuloa?
- LORE** Eta Manu be ez da etorri.
- IBON** Maixuak zigortu dau a.
- LORE** Zegaitik?
- IBON** Bera ta ni berbetan ibili garealako.
- GARO** Eta zu libre? Danak esaten dabe, Ibon, zu maixuaren zera... bai, aixe zareala.
- IBON** Ni? Nok esaten dau ori? Mekatxis! Niri baiño koskor geiago iñori atara izan dautsa?
- TODA** Bai zera, zugaz olgetan ibilten ei da.
- IBON** Ori esaten dauanari, okotsa dindilizka lagako dautsat.
- LORE** Berba asko egin eta gero, amagana joan negarrez.
- GARO** Gaur be Manu zigortu ta zu ez?
- IBON** Biok zigortu gaitu.
- LORE** Zetara?
- IBON** Ba berreun bidar bakoitzaren izen abizenak idaztera.
- TODA** Zelan zagoz ba emen? \
- IBON** Amaitu dodalako.
- LORE** Eta arek ez? Zu baiño makalagoa da ala?
- IBON** Ez baiña... kakua. \

- LORE** Zelako kakua? Egin dozu tranparen bat.
- TODA** Zu Ihon Papardo ez zara ba ta a Manu Tramana?
- IBON** Maixuarentzat ez.
- TODA** Zer ba?
- IBON** Bakoitzaren apellidua (abizena) nai izaten dabelako.
- GARO** Orretara Manu'k gaur be ez dau amaituko. Ez dago orretarako eskubiderik.
- LORE** Ez daki bixkor idazten ala?
- GARO** JO! Aren abizena ez dakizu zer dan? Manu Garrogerrikaetxe-barriabarrena...
- TODA** Errepatxi! Ia kilometro bat.
- LORE** Eta zuk?
- IBON** Nik? Ibon Ea.
- LORE** Eta biok zigor bardiña?
- TODA** Berak be Garro bakarrik ipini bear leuke.
- IBON** Maixuak esaten dau orrek ez dauala balio, pekatu bardiñak zigor bardiña bear dauala, eta abizena ez dala berak asmatua, aitaren eta amaren kontua baiño.
- TODA** / Baiña etorriko da, ez?
- LORE** / Zein? Manu?
- IBON** Nigaitik ez ba dator be...
- TODA** / Eta Peru?
- IBON** Batek ba daki.
- LORE** / Etorten ez ba da ba dakizu beste mutillak zer esango daben?

46 ANTZERTI

IBON Zer esan?

LORE Zera! Igarri!

IBON Zeñegaitik?

LORE Ori zeuk pentsatu.

IBON Zer esango dabe ba?

TODA Nai do'zu neuk esatea? Bai?

IBON Guzurren bat esango dabe.

TODA Edo ez.

IBON Zer esango dabe ba?

TODA Ba... Ibon neskatxiki zareala.

IBON Ba dakit zegaitik diñozun ori.

TODA Egia da-ta!

IBON EZ dozuelako ibili nai nigaz.

LORE Joatea nai dozue, ez da ala?

IBON Guk ez baiña...

IBON Joango naz, baiña urrenguan ez etorri niganá ezer eskatuten.

(*IBON, asarre, ba dua.*)

II

A N D E , L O R E , G A R O eta T O D A

ANDE Asarretu da.

- LORE** Itsumustuan joan da.
- ANDE** Kenduko jakoz unoreak.
- GARO** Ederra bota dautsazu!
- TODA** Ez al da egia?
- ANDE** Zuk, benetan be, bialdu nai zendun?
- LORE** Ez eta bai.
- ANDE** Bai ala ez naiago?
- LORE** Nik damua lakoxea daukat.
- GARO** Ñiri, bestiak ba lebiz, ardurarik ez.
I i
- ANDE** Zuk Peru dozu lagun eta...
- GARO** Baita zera be.
- ANDE** EZ dakigulakoan!
- LORE** Atzo be berak lagundu eutsun eskolako ariketak egiten.
- GARO** Ori kontaten dabilena be jausiko da. Txoliña!
- ANDE** Nik ez dot esan kontatearren.
- GARO** Zer ba?
- ANDE** Eta ni ez naz txoliña, ba dakizu?
- GARO** Zegaitik zabaldu dozu ba?
- ANDE** Ba... urten dabelako.
- LORE** Zer dauka ze ikusi orrek?
- GARO** EZ, baiña... ba dakizu. Esan bearra.
- TODA**, Gure aitak esaten dau Peru'ren ama eta zuena lagun andiak dirala.

48 ANTZERTI

- GARO** Baita zeueneko aita eta ama be! Iño! Moñetiak ez dautsu urten? Eta ori da dan dana?
- ANDE** (*Ondartzan zerbait billatzen dabela*)
Ene! Begira! Ama Birgiñaren sandalia txikia.
- GARO** Zer?
- TODA** Zeure pongolak!
- ANDE** Auxe ez da izaten ba?
- TODA** Ori txirla oskola izaten da.
- ANDE** Nok esan dsu ori?
- TODA** Sor Marta'k esan euskun bein.
- ANDE** Asko daki arek itxasoko gauzarik, baserritarra ba da. Baserritarra tirri-tarra, jo popan da errekarra, dala, ez zenkien?
- TODA** Eta ikasi ba dau?
- GARO** Gure aitak esaten dau baserritarrak sekula ez dabela ikasten itxasoko gauzarik.
- LORE** Gure amak esaten dau ez pentsateko gu bitsetan biziaren, areik autsetan bizi diranik.
- ANDE** (*Bere pitxia erakutsiz*) Ikusten? Polita ez da ba?
- TODA** Ama Birgiñaren sandalia ori? Ume mantokua izan zan ala?
- ANDE** Eta ez zan izan ala?
- GARO** Baita nik ara emen, Jainkoaren begia billatu.
- TODA** Jaungoikoa potxolua da orretara!
- GARO** Ori esatea pekatu da.
- TODA** Zegaitik?

- GARO** Burla egitea dalako.
- TODA** Begia galdu ba eban?
- ANDE** Gure aitak be orrelaxe dala esaten dau. Pitxi orrerri Jaungoikoaren begia deitzen dautsela. Gordeta daukaz ainbat orrelako.
- TODA** Zetarako?
- ANDE** EZ dakit. Guraria izango da.
- TODA** Espirituak begirik eukiten dabe?
- GARO** Zegaitik diñozu ori?
- TODA** Nik esan, itandu.
- GARO** Eta Kristo espirituua izan zan?

III

ANDE, LORE, GARO, TODA, PERU, MANU eta UNAI

(*Iru mutillak batera agertzen dira, aitz gaiñe baten, alaitzu.*)

- PERU** (*Deika*) E! Nun zabize?
- LORE** Ba zatoze?
- PERU** Zegaitik iges egin dozue?
- GARO** Guk? Zuek ez zarielako etorri.
- MANU** Eta Ibon?
- TODA** Ez dozue bidean billatu?
- UNAI** EZ a eta ez beste iñor.

50 ANTZERTI

- LORE** Oraintxe joan da ba.
 Ez dakizue? Asarretu egin da.
- UNAI** Lenengoz,a!
- LORE** Ez barrerik egin. Benetan.
- UNAI** Zegaitik?
- LORE** Toda'k dauka errua.
- TODA** Nik? Orain be nik?
- LORE** Neskatziki deituko dautsela esan bearra be!
- TODA** Ez al da egia?
- PERU** Orretara guri be bai?
- TODA** EZ da bardin, danok ibili edo bat bakarra beste guztiekin ibili.
- MANU** Nora joan éte da?
- GARO** Nunbaiten eskutauta egoteko be gertu a!
- LORE** Gu igarian ikusi ta bildurtuko gaitulakoan irrika asteko?
- GARO** Ia, etorri Peru. Au Jainkoaren begia ez da ba?
- TODA** Ori Unai'k be jakingo dau.
- MANU** Eta Peru'k esatea naiago ba dau?
- GARO** Orrek ez dau balio. Adarra joten asi zarie.
- UNAI** Zelako zarata dabil or barruan?
- TODA** Itxasoko zarata.
- UNAI** Ez, baiña or barruan.
- TODA** Olatuak ataraten daben zarata.

- UNAI** Olatuak beste aldian dabilz.
- TODA** Euren burrunbada izango da.
- GARO** Aizea be olgetanjbilten ei da or barruan.
- UNAI** Zeiñegaz olgetan?
- MANU** EZ egizu bildurrik, Unai.
- PERU** EZ zaitez estutu.
- MANU** Kalatxoriak be ortce lo figiten ei dabe. Alakoren bat ibiliko da.
- PERU** EZ ikaratu. Ikusten? (*Zulo ondora urreratu eta arrika egiten dau barrura*)
- Entzuten? Arria sartu da ta zaratatik be ez. Galdu.
- TODA** Esaten dabe zulo andia dagola barrura. Sekula iñor-ez dala ausartu barru-barrura joaten.
- UNAI** Zegaitik ez?
- PERU** Esaten dabe sartu ta sartu eta gero, itxasoa billatzen dak.
- UNAI** Zelako itxasoa?
- PERU** Guk zer dakigu ba? Bear ba da itxasoaren ondua izango da.
- GARO** Berbetan ez dabil iñor?
- PERU** Bai zera! Gure berben oiartzuna (*ekoia*) izango da. Ez dakizue mendian be zelan gertaten dan?
- (*Deia*) E! Eee!
- Ez dozue igarten? Gure zarata da.
- PERU** (*Zulo aldera dei luzean*)
- Unai! Unai!

52 ANTZERTI

MANU Entzuten?
Ai... ai...! ixil baiña luze entzun da.

UNAI Benetan?

LORE Urrun entzun da, bai, sakonean.

UNAI Orain ez da iñor igarten.

PERU EZ da egun guztian erantzuten egongo.
Barriro deituko dot.

UNAI Nire izenik ez.

PERU Zegaitik ez?

UNAI EZ dodalako nai.

PERU EZ zaitez ain koldarti.

UNAI Nai ez ba dot, zer?

PERU (*Deika*) Garo! Garo!!
Konturatzen? 0,ooo! erantzuten dabe.

UNAI Norbait bizi da.

PERU Ezetz ba! Koba askotan be ura ez da egoten?

ANDE Itxas laiñoa lakoa dator barrutik.

UNAI Alaxe dator. Lurruna lakoa.

PERU Gure aitak esaten dau barruko uren izerdia dala.

ANDE Ene! Begira or aurrean, zelako pitxia.
Au lengoa baiño politagoa da.
(*Artu ta erakusten dabil*)

- TODA** Ori? Ori txirla zarren oskola da.
- ANDE** Sekula ikusi dozu ain txirla andirik?
- TODA** Urtetan asiko zan.
- LORE** Lapa zarra da. Eguzkirik ikusi bako lapa zarra.
Ikusten Unai?
- UNAI** Laga egiozu. Ez egin miñik.
- ANDE** Oskol zatarra da ta zelan artuko dau eta nun miña?
(Aitz baten aurka jaurtiten dau)

IV

L E N G O A K eta A B O T S A

- ABOTS** (*Barrutik*) Ume potozorri! Nok agindu dautsu itxaskiak orrela jaurtiteko? Ez dakizu lapak be bizia eukiten dabenik.
- ANDE** Oskola da.
- ABOTS** Eta ez dakizu oskol zarretan lapa barrien karea egoten danik?
- ANDE** Sorgiña zara.
- ABOTS** (*Barrezka*) Sorgiftik ez da bizi itxasoetan.
- ANDE** (*Iges egiten asten da*)
- ABOTS** Geldi! Ez alperrik iges egin. Ezin ziñei iñora joan.
- ANDE** (*Garraxika*) Bai, ba nua! Ba nua!
- ABOTS** Nora? Zoro! Ama Birgiñaren kobako zaindariak zure bizjiaren aria eskuetan artu dogu.

54 ANTZERTI

Lapa biurtuko zara, geuk nai dogun arte.

ANDE Ni lapa ez. Umea naz, neska.

UNAI Iges, iges danok arin.

ABOTS Koitaduok!

Ez alperrik alegindu. Ezin dozue.

Iñor ausartu al da oraiñarte itxasoa eta bere inguruen aurka?

Ez dozue ikusten? Nai ta be ezin dozue zirkiñik egin. Ezin. Ez daukazue ihdarrik.

UNAI Umeak gara! Gure etxeetan ez dakie nun gabiltzan.

ABOTS Itxasoak bizia ba dauka, baiña biotzik ez. Ez zenkien?

UNAI EZ zaite arrotu gugaz!

ABOTS Zuek gure naia betetera lotuta zagoze. Ikusten ez dozuen katea daukazue inguruau.

Sartu, sartu danok koba barruan.

Zeiñen zain zagoze?

(Neska mutillak sartu nai ez-ka agertzen dira, alkarrri begira)

GARO Dardaraka zagoz, Peru.

PERU ZU karea baiño zuriago.

UNAI Zeugaitik etorri naz, Lore.

LORE Ia gaixotu be egin naz.

ABOTS Onean sartu nai ez? Olatu andi bat sortu eragin eta danok tatarrez eroatea naiago?

(Deika) Lapa! Lapa zarra! Entzuten lapa? (Aurrean dagon aitz andi bateri deika dabil)

Aitz biurtu ziñan, baiña oraindik lapa zara! Artu arnasa, zabaldu zure egala ta iruntsi, eta zeure barruan gorde, guk agindu arte, zugaitik txarto esan dabe neska koskorra!

- ANDE** (*Makurtu eta evezkoak egiten*)
Ez! Ez! Parkatu! Ni ez!
- ABOTS** Okertu, makurtu, nai belauniko negarrez jarri, bardin da. Lapá biurtuko zara, guk nai arte, eta itxasoen kresalaz biziko zara, beste barik, koba onetako misterio lez.
(*Kobako ezker aldean dagon aitz irudiko lapa zar andia, zabaldu egiten da, aizea eta bitsa jaurtiten lez, eta Ande iruntsi, onek garraxika ekiten dautsan artean.*)
- ABOTS** Ikusten?
- Zeiñeri atsegin lanpernak, zeiñeri mutxilloiak, zeiñeri mongoliñoak, zeiñeri txirlak? Danentzako dagoz etxeak.
- Zegaitik ez zarie beste barik sartzen?
- UNAI** Ni lenago ilgo naz, sartu baiño.
(*Beste guztiak jezarri egiten dira, sartu nai ez da, alkarri lotu edo besarkatuten, ikaraz.*)
- ABOTS** Jezarri nai belauniko makurtu, bardin da. Nire agindua emona dago ta beste barri bat arte iñor ez da geratuko nik agintzen dodanik bete barik.
- Manu!
- MANU** Ni?
- ABOTS** ZU ez zara ba Manu?
- MANU** Zelan dakizu? Nundik?
- ABOTS** Jakin bearrik ez daukat nor zein dan ezagutzeko.
Zu lanperna biurtuko zara ta zure atsegínez beteko dozu kobakoen bizia.

56 ANTZERTI

MANU Ni lanperna? Eta nire ama! Eta nire amuma zarra!

ABOTS Lanpernak ez al dauke bizirik?

MANU Ni lanperna ez, ittoko naz-eta!

ABOTS (*Aurreko lanperna iruditidun aitzari deika*)

Aittitta lanperna! Itxasoetan bizi dan lanpernarik andiena!

Luzatu, luzatu zure azal tutua, ta iruntsi, itxasoaren indarretan sinistu nai ez daben multiltxo au, gizaldien gizaldietan berak eta bere ondorengoak lanpernak lez itxasoaren aurrean makurtuteneikasi dagien!

(*Aitzetik bera lanperna azala jausten da, eta burutik bera MANU estalduta laga*)

(*Gero ta ikaratiago dagoz beste guztiak. Belauniko jarten dira eta otoitzetan asi*)

LORE Itxasoen eskutuko ala. Sinistuten dogu zure indarretan.

BESTEAK Sinistuten dogu. Parkatu.

TODA Itxasoen eskutuko ala. Sinistuten dogu zure izakietan.

BESTEAK Sinistuten dogu. Parkatu.

ABOTS Bildurraren naigabea da ori.

PERU Itxasoen eskutuko ala. Zure indarren aurrean bildurtutene gara. Zure esanetara gertu gagoz.

BESTEAK Gertu gagoz. Parkatu.

ABOTS Oraindik maitasunik ez dozue agertu, bildurra baiño.

PERU Dardaraka eta bildurretan zer maitatu leike?

